



*Prensa oharra*

Materiala eskura **ON LINE PRENTSA ARETOAN:**

[Prensa oharra](#)

*Kooperatibak eta WWFk lankidetzak akordio bat dute 2004tik*

## **EROSKI-K BAT EGIN DU WWF-K SUSTATZEN DUEN "PLANETAREN ORDUA" KANPAINAREKIN**

- Datorren larunbatean EROSKI k bat egingo du itzalaldi kanpaina sinbolikoarekin
- EROSKI k eta WWFk lankidetzan dihardute, hitzarmen baten harira, ingurumen politika zenbait sustatzeko, hala nola arrantzalekuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza eta kontsumo arduratsua

Elorrio, 2017ko martxoaren 23a.- [EROSKI](#) k bosgarren urtez egingo du bat [WWF](#) k Nazio Batuen Erakundearen babesarekin antolatzen duen "[Planetaren ordua](#)" kanpainarekin. Hala, itzalaldi sinbolikoa egingo du [www.eroski.es](http://www.eroski.es) eta [www.consumer.es](http://www.consumer.es) webguneetan; martxan jarraituko dute webek, baina argi apalagoarekin. Mundu osoko milioika pertsonak itzaliko dute argia ordubetez (20:30etik 21:30era bitartean, martxoaren 25ean), mundua kontzientziazteko ingurumenaren garrantziaz eta klima aldaketaren kontrako borrokaz.

*"Aurten ere EROSKI k babesa eman nahi dio WWFren ekimenari, zeina mundu guztian erreferentziazkoa baita ingurumenaren defentsan; horretarako, ekimenak gauzatuko ditugu kontsumitzaileak eta langileak kanpaina honetan murgiltzeko. Kontsumitzaileek gero eta eskakizun handiagoak egiten dituzte iraunkortasun irizpideetan eta EROSKI n lanean ari gara kontsumo arduratsuaren inguruko eskakizun horiek betetzeko",* esan du EROSKIko Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Hauek dira kooperatibaren Ingurumen Planean datozen ekintzarik esanguratsuenak: energia kontsumoa gutxitzea eta energia berriztagarriak erabiltzea, birziklatzea, isuriak gutxitzea, ekodiseinuaren bidez ontziak optimizatzea eta Zurekin eredu komertzialera egokitutako EROSKIren denden ingurumen iraunkortasuna handitzea. Era berean, EROSKI k eskaintzetan ingurumen bermeak ematen ditu bere zentro guztietan, hala nola zurez egindako produktuetan, baso iraunkorretatik datorrela erakusten duen FSC zigiluarekin. Edo arraina arrantzaleku iraunkorretatik datorrela erakusten duen MSC zigiluarekin; EROSKI da txikizkako banatzaile bakarra ziurtatzen duena bere zaintza katean arrain freskoa itsasoko ekosistema gehiago errespetatzen duten arrantzalekuek datorrela.

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKIk eta WWFk lankidetzaz hitzarmena sinatua dute ingurumen politika zenbait aurrera ateratzeko; besteak beste, arrantzaletuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza eta kontsumo arduratsuagoa.

Era berean, WWFk eduki pedagogikoak landu ditu iraunkortasunaren gaineko modulu espezifikoko baterako, [EROSKiren Elikadura Eskola](#)ko Elikadura eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programaren barruan, Espainia guztiko ikastetxeekin elkarlanean. 2016-2017ko ikasturte honetan, bosgarrenez ari dira programa betetzen, eta helburua da ikasleak sentsibilizatzea elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak izatearen garrantziaz. Ikasleek erosketa osasungarria egiten ikasten dute EROSKIren denda batean, eta aukera dute elikagaiak ekoizten dituen nekazari baten etxaldea ikusteko, bertatik bertara ezagutu dezaten janaria nondik datorren.

Azken urte hauetan, Zurekin eredu komertziala dendetan hedatzen joan den bezala, EROSKI hotzaren, klimatizazioaren eta argiztapenaren ekipamendurako eta kudeaketarako sistema berriak hartzen joan da, efizientzia energetikoa hobetzeko, alferreko gastuak gutxitzeko eta bere jarduerak ingurumenean duen eragina txikitzeko.

EROSKIk Ingurumen Iraunkortasunerako Planak garrantzi handia eman dio efizientzia energetikoaren atalari, eta zenbait ekintza lerro ipini ditu, zeinetako bat baita potentzia elektrikoak doitzeko optimizatzaile hau. Azken lau urteetan, EROSKIk zazpi milioi euro baino gehiago aurrezteko lortu du elektrizitatearen gastutik, zeri esker eta efizientzia energetikorako neurri multzo hori hartzei esker. EROSKIk eta EHUK elkarrekin potentzia elektrikoak doitzeko optimizatzaile bat garatu dute. EROSKIk tresna hori erabiltzen du gaur egun bere denda sareko potentzia elektrikoak doitzeko. Metodo hori aurrendaria da efizientzia energetikoan, eta potentzia elektriko optimoa kontratatuzko aukera ematen dio zentro bakoitzari.

## EROSKI

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.896 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, hor ditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak; eta, horrez gain, gasolindegia, bidai bulegoak, lurrindegia eta kirol ekipamendurako

---

### EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### EROSKI – PRENTSA BULEGOA

#### CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



dendak. Zazpi milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.509 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide.

Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean.

### **WWF**

WWF natura babesteko mundu erakunde independenterik handienetako eta eraginkorrenetako bat da. Haren helburua da Lurreko ingurumen hondamendia geldiaraztea eta gizakia etorkizunean naturarekin harmonian biziko den etorkizun bat eraikitzea, aniztasun biologikoari eutsita, baliabide berriztagarri naturalen erabilera iraunkorra ziurtatuta eta kutsadura eta neurrigabeko kontsumoa gutxitzen lagunduta.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)